

V - BESTELAKOAK

SANTA MARIA FUNDAZIOA KATEDRALA

Komunikazio eta harreman publikoen zerbitzua emateko lizitazio bidezko prozedura irekia

1. Erakunde adjudikatzailea: Santa Maria Fundazioa Katedrala.

2. Kontratuaren helburua:

A) Helburuaren deskribapena: komunikazio eta harreman publikoen zerbitzua ematea.

B) Banaketa loteka: ez.

C) Iraupena: bi urte, eta beste bi urte luzatzeko aukera.

3. Izapidea, prozedura eta adjudikatzeko era.

A) Izapidea: ohikoa

B) Prozedura: irekia

C) Era: ekonomikoki onena den eskaintza, Hainbat adjudikazio-irizpide:

1. Eskaintza ekonomikoa (unitate-prezioa): 60 puntu arte.

Ohiz kanpoko balioak edo balio neurrigabeak dituzten eskaintzatat joko dira, ezaugarrien koadroko "I" atalean zehaztutako prezioak baino baxuagoak badituzte.

2. Laguntza-zerbitzu eta -berme jarraitua eta berehalakoa emateko baliagarritasuna:

25 puntu arte

3. Baldintza teknikoen agirian adierazitako zerbitzuen gutxieneko baldintza teknikoen gainean eskaintako hobekuntzak, eta interesgarritzat jotzen direnak: 15 puntu arte

4. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua.

Gutzizko zenbatekoa: bi urtetarako aurreikusitako aurrekontua 35.000,00 eurokoa da (BEZ gabe).

Beste bi urtez luzatzea adostuz gero, lau urtetarako aurreikusitako aurrekontu orokorra 70.000,00 eurokoa (BEZ gabe) izango da.

Zehaztutako kontratuaren aurrekontua gutxi gorabeherakoa da eta ez dago ordaindu beharrik. Adjudikatzaileari egin beharreko ordainketa emandako zerbitzuen eta kontratuak irauten duen urte bakoitzean indarrean dagoen tarifaren arabera izango da. Halaber, adjudikatzailearen eskaintzan jarritakoa izango da.

5. Bermeak:

Behin-behinekoa: ez da eskatzen

Behin betikoa: lizitazioaren aurrekontu-oinarriaren ehuneko 5a (BEZ gabe).

6. Kontratistaren berriazko baldintzak:

Kaudimen ekonomikoa, finantzariora eta teknikoak: ikusi ezaugarrien taulako "O" puntua.

Ez dago sailkatu beharrik.

7. Dokumentazioa eta informazioa eskuratzea:

Santa Maria Katedrala Fundazioaren bulegoak

Tokia: Vitoria-Gasteizko Aiztogile kalea, 95

Telefonoa eta faxa: 945122160

Edo Kontratugilearen profilean: www.catedralvitoria.com

8. Eskaintzen aurkezpenak:

A) Epea: ALHAOn lizitazio-iragarkia argitaratzen denetik kontatzen hasi eta hurrengo 15 egun naturaleko epea izango da.

Eskaintza postaz aurkezten bada, Administrazio Publikoen Kontratuen Lege Orokorraren Arautegiko 80. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

B) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: ikusi ezaugarrien taula eta orri administratiboak eta teknikoak

C) Aurkezteko tokia: fundazioaren bulegoan, goizeko 09: 00etatik eguerdiko 14: 00etara. Azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, hurrengo egun baliodunera atzeratuko litzateke.

D) Aldaerak onartzen dira: ez

9. Eskaintzak irekitzea:

“C” gutun-azala proposamenak aurkezteko azken egunetik hasi eta bosgarren egun baliodunean irekiko da, 13: 00etan, fundazioaren bulegoan, “B” gutun-azala ireki ostean.

Formulen bidez ebaluagarri ez diren irizpideen balorazio-txostena egin eta gero, “A” gutun-azala proposamenak aurkezteko epearen azken egunetik hasi eta hamargarren egun baliodunean irekiko da, 13: 00etan, fundazioaren bulegoan.

10. Beste informazio batzuk:

Ezaugarrien taulako “Q” atalean zehaztutako bitarteko pertsonalei derrigorrez atxikitzea.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko otsailaren 20a

Presidente

JAVIER DE ANDRÉS GUERRA